



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

"ZAISA I" ETA "ZAISA III" EREMUE TAN KAMIOIEN APARKALEKUETARA SARTZEKO KONTROLA ERAMATEKO KONTRATUA PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ ESLEITZEKO KLAUSULA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUAREN KARATULA. (CPV 98341120-2)

ESPEDIENTE-ZENBAKIA: ZAISA 1/2019.

ERAKUNDE KONTRATATZAILEA (datuak) eta KONTRATATZAILEAREN PROFILA:

- "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." (ZAISA).
- Harremanetarako pertsona: Luis Corta Arratibel jauna. Gerentea.
- Telefonoa: 943-630130.
- Kontratatzailearen profila: www.zaisa.com
- Euskadiko kontratazio plataforma: <http://www.contratación.euskadi.eus/w32-home/es/>

A- XEDEA:

Plegu honen xedea zera da, ZAISA I eta ZAISA III eremuetan kokatutako kamioientzako aparkalekuetara sartzeko kontrol zerbitzuak kontratatzekeo prozedura arautuko duten arau eta jarraibide ekonomiko-administratiboak zehaztea, honako Plegu hau eta "Zehaztapan Teknikoak" izeneko V. Eranskinean adierazten diren zehaztapan teknikoak kontuan hartuz.

B.- ESLEITZEKO ERA:

Kontratua prozedura irekiaren bidez, ohiko tramitazioan, esleituko da, ez da erregulazio harmonizatura ezarriko eta kalitate-prezio erlazio onena aurkezten duen eskaintza aukeratuko da, "N" letran zehaztuta dagoen balorazio irizpidearen arabera.

C.- ZERBITZUAREN IRAUPENA:

Plegu honek aipatzen duen zerbitzua burutzeko epea bi (2) urtekoa izango da, kontratu hau sinatzen denetik aurrera zenbatuta.

Kontratuko aldeak ados jarrita, kontratua amaitzen denean luzatu ahal izango da, gehienez jota beste urtebetez, beraz, guztira hiru urte osatu arte.

D.- KONTRATUARI KALKULATZEN ZAION BALIOA: LIZITAZIOKO AURREKONTUA:

Kontratuaren (3 urte) bataz besteko balioa 687.288 € + 144.330,48 € (%21eko BEZ)



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

Kontratuaren urteko aurrekontua eta lizitazio tipoa 229.096 € + 48.110,16 € (%21eko BEZ) da.

E.- PREZIOEN BERRAZTERKETA.

Ez dagokio prezioen berrazterketarik.

F.- PREZIOAREN ORDAINKETA:

Prezinoa bankuko transferentzia bitartez ordainduko da, aurrez dagokion faktura egin eta aurkeztuta eta kontratua gauzatzera adskribitu edo dedikatutako langileei dagokien azkeneko nomina ordaindu izanaren justifikantearen edo egiaztagiriaren kopia bat aurkeztuz, hala nola aipatu langileen TC1 eta TC2 erduen kopia ere aurkeztuz.

Prezio hori hogeita hamar (30) egunetako epean ordainduko da, IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A. erakundearen arduradunak aipatutako dokumentazioari oniritzia ematen dionetik aurrera.

Plegu honetan aurreikusitako kontratu-xedetik kanpo edo bere kasuan IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A. erakundeak espresuki errekeritua izan ez den lanik edo zerbitzurik ez da ordainduko.

G.- ALDAGAIEN ONARPENA:

Ez da onartuko.

H.- PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA:

Hamabost (15) egun, 10:00ak arte, kontratuaren iragarkia IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A. erakundearen kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik aurrera, Euskadiko kontratazio-plataforman kokatua. Azkeneko eguna larunbata bada edo egun baliouduna ez bada, epe hori hurrengo egun balioudunera arte luzatuko da.

I.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA:

IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A. erakundearen bulegoetan, Euskadi plaza, 8 zenbakiko 7. eskuina, Irunen, kokatuta.

J.- ZERBITZUA BURUTZEKO TOKIA:

Irungo ZAISA Garraio Plataforman dauden ZAISA I eta ZAISA III kamioientzako aparkalekuetan.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

K.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA:

Ez dago horrelakorik.

L.- BEHIN BETIKO BERMEA:

Kontratuaren esleipendunak behin betiko berme bat osatu beharko du, esleipen-zenbatekoaren ehuneko bostekoa (%5), BEZ sartu gabe, sinatu beharreko kontratuan beregain hartuko dituen obligazioak beteko direla bermatzeko.

Aipatu bermea osatzeko epea 10 egun baliiodunekoa izango da, Kontratazio Organoak zentzu horretan egin liezaiokeen errekerimenduaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, eta Pleguko XII. atalean adierazten den moduan osatu beharko da.

M.- ASEGURUAK:

Esleipendunak, kontratuak irauten duen epean, erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuta eduki beharko du, gutxienez 150.000 euroko estaldura minimoarekin ezbehar bakoitzeko, kontratatutako zerbitzua ematerakoan sor daitezkeen erantzukizunak estaltzearren.

Esleipendunaren kontu eta bizkar izango da aipatu aseguruaren primen zenbatekoa, baita bere kasuan sor daitezkeen ezbeharren diru zenbatekoa ere, aseguruaren polizan ezartzen diren mugetatik harago gainditzen direnean ordaindu behar den zenbatekoa barne.

Kontratuak irauten duen bitartean "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak esleipendunari eskatu ahal izango dio polizak erakutsi ditzala, baita kontratatutako primak ordaindu izanaren egiaztagiria ere.

N.- ZIGORRAK:

Pleguko XXII.1.a) atalean zehaztutako falta oso larriak 6.000 € arteko isunarekin zigortuko dira.

Pleguko XXII.1.b) atalean zehaztutako falta larriak 3.000 € arteko isunarekin zigortuko dira; eta Pleguko XXII.1.c) atalean zehaztutako falta arinak 300 € arteko isunarekin zigortuko dira.

Arau hauste oso larriak gertatuz gero, "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak erabaki dezake dagokion zigorra ezartzea edo kontratuari amaiera ematea.

O.- KAUDIMEN EKONOMIKO, FINANTZARIO ETA TEKNIKO:



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

Pleguko XIII. atalean zehazten dena izango da.

P.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

P.1.- APLIKAZIO AUTOMATIKOKO IRIZPIDEAK.-

Kontratuaren prezioa. Gehienez 70 puntu arte.

Puntuatzeko metodoa formula honen arabera izango da.

$$P_x = 70 \times \frac{\text{Eskaintza minimoa}}{\text{Eskaintza}_x}$$

Non:

P_x = aztertu den eskaintzak eman duen puntuazioa.

Eskaintza minimoa = Eskaintza ekonomikoenaren zenbatekoa

Eskaintza $_x$ = Aztertzen ari den eskaintzaren zenbatekoa

Proposamen bat neurrigabeko edo anormaltzat jo litekeela uste denean, hori aurkeztu duen lizitatzailari entzun egin beharko zaio eskaintzaren balorazioa justifikatu dezan eta ZPKL legeko 149 artikuluan adierazten denaren arabera baldintzak zehaztu ditzan.

Zentzu horretan, neurrigabeko edo anormaltzat hartu ahal izango da aurkeztutako eskaintzen batz besteko aritmetikoaren arabera 20 unitate portzentualetan edo gehiagoan txikiagoa den eskaintza hura.

P.2.- BALIO JUDIZIO BATEN MENDE DAUDENAK. Gehienez 30 puntu arte.

Eskaintza teknikoaren kalitatea; ondorengo alderdiak baloratuko dira:

1.- Zerbitzua gauzatzeko proiektua: 15 puntu, gehienez.

Gehienez 15 puntu emango dira zerbitzua gauzatzeko proiektua ondorengo premisen arabera aurkezteagatik, lizitazio honen xede den zerbitzuarentzat sailkapen egokiena den hura ere baloratuz, alegia, enpresak sailkapenean duen tokia baloratuz.

- Zerbitzua gauzatzeko proiektua: 4
puntu
- Estaldura bermatuko duen kontingentzien plan espezifikoa.
eta ezustekoen aurrean erantzuteko gaitasuna: 4
puntu
- Zerbitzuko langileentzat formazio plan espezifikoa: 4
puntu
- Emandako zerbitzuaren eta prozeduren maila



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

ezagutzeko eta hutsune posibleak zuzentzeko aukera eman dezakeen
gainbegiratze eta barne-kontrolerako plana:

2 puntu

- Uniformetasun proposamena: 1
puntu

2.- Kontratuari lotutako langileria (prestakuntza eta esperientzia): 12 puntu, gehienez.

a) Gehienez 6 puntu emango dira kontuen arduradun edo zerbitzuko koordinatzaile posturako enpresek aurkeztutako curriculumagatik, honela banatuta:

- Prestakuntza: 2 puntu langileen kudeaketarekin zerikusia duen lizentziaturagatik.
- Esperientzia: 4 puntu antzeko erakundeetan zerbitzuak kudeatzen 5 urteko esperientziagatik eta/edo egiaztatzeagatik.

b) Gehienez 3 puntu emango dira zerbitzura esleituko diren langileen curriculumagatik, zerbitzu horretan egiaztatu daitekeen esperientziaren urte bakoitzeko 0,06 puntu emanez, edo bestela, langileen curriculum bakoitzak eman lezakeen antzeko zerbitzuarenak. Egiaztatutako urte guztiak batuko dira eta gehienez 3 puntu emango dira (edo guztira pilatutako 50 urteko esperientzia).

c) Lana egonkortzeko plana. Gehienez puntu 1 emango da lizitatzaileen konpromisoagatik, alegia, talde profesionalaren baldintzak mantentzea eta/edo hobetzea dakarren konpromisoagatik, bai aplikagarri den hitzarmenean eta bai langilearen eta enpresaren artean ezarritako itun eta akordioetan ere.

d) Eskualdatze edo lehengoratzeko plana. Gehienez 2 puntu emango dira plan espezifiko bat aurkezteagatik, non plantillako langileekin jarraitu beharreko prozedura adieraziko den kontratua amaitzerakoan eskualdatze edo lehengoratzeko kasuan.

3.- Pleguan hobekuntzak: 1,5 puntu.

Gehienez 1,5 punturekin baloratuko dira preskripzio teknikoen pleguan eskatutako kargurik gabeko alderdi edo prestazio gehigarri haiek.

Hobekuntzak proposatutako zerbitzuari buruzkoak izan behar dira eta lehenik eta behin bertan daukan erabilgarritasun maila hartuko da kontuan.

Ez da hobekuntzarik onartuko berori ezartzeko gehienezko epe bat zehazten ez badu.

4.- Kalitatea ziurtatzea: 1,5 puntu.

- 0,5 puntu emango zaizkio Enpresaren Bikaintasun Eredu Europarraren EFQM ziurtagiria daukan enpresari.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

- 0,5 puntu emango zaizkio Lan Arriskuen Prebentziorako OHSAS 18001:2007 Ziurtagiria daukan enpresari.
- 0,5 puntu emango zaizkio 1,5 milioi euroko edo gehiagoko Erantzukizun Zibileko Asegurua daukan enpresari.

Q.- ESKAINTZAK IREKITZEA:

Esleituko den kontratuari buruzko informazioaren gardentasuna eta eskuratze publikoa ziurtatzearen, eskaintzak irekitzeko unea eta tokia "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen kontratugilearen profilean emango da ezagutzera, web orri honetan: www.zaisa.com Euskadiko kontratazio-plataforma honetan kokatua: <http://www.contratación.euskadi.eus/w32-home/es/>

R.- SUBROGAZIOA LAN KONTRATUETAN:

Ez dago, Hitzarmen Kolektiborik ez dagoelako.

S.- INFORMAZIO GEHIAGO:

Lizitatzailleak behartuta daude beren eskaintza sei (6) hilabeteko epean mantentzera.

Eskaintzak aurkezteak esan nahi du lizitaziora aurkezten direnek baldintzarik gabe onartzen dutela lizitazio, esleipen eta gauzatze prozesuetatik sortutako datu guztiei gardentasun instituzionala emango diela amaiera arte.